



**VII. ERANSKINA.
ANTOLAMENDU-ARAUAK
EKINTZAK BALIABIDEETAN**

**BILBO METROPOLITARREKO EREMU
FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA**

2025



EKINTZAK BALIABIDEETAN

UR-HORNIDURA

Jarduera-ildoak

- Sare osoaren errendimendua optimizatzea, Zadorraren hornidura-sistemak (horien menpe dago Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hornidura) konektatu ostean Bilboko Udaleko Ordunteko Urtegitik egiten den hornidurarekin.
- Gune guztiei zerbitzua emateko prozesua amaitzea. Hurrengo urteetarako aurreikusitako ur-eskariei erantzun ahal izateko beharrezkoa den bilketa, erregulazio, garraio eta tratamenduko azpiegitura planifikatzea eta garatzea, funtzionaltasuna eta kudeaketa hobetzera bideratutako jarduerari lehentasuna emanez.
- Lehen mailako sare-eroanbide berriak eraikitzea, sareen banaketa zein sistemen arteko konexioak handituz.
- Sarerako hornidura bermatzeko baliabide berriak sartzea.
- Egungo Edateko Ura Tratatzeko Estazioak (EUTE) handitzea eta berritzea eta horien tratamendu-prozesuak modernizatzea.
- Uraren aurrezpena eta erabilera eraginkorra eta arrazionala modu integralean arautzeko beharrezkoak diren araudi-alderdiak sartzea hirigintza-plangintzan.
- Eraikuntza- eta hirigintza-araudian, irizpideak txertatzea, zehazki, sektore desberdinetan ura aurrezteko ahalbidetzen duten instalazioak eta gailuak garatzeko aurrera egite aldera: bizitegiak, industria, merkataritza eta ekipamenduak. Horrez gain, hori egingo da berdeguneetan eta espazio publikoen sareko espazio libreetan.

Ekintzak.

Proposatutako jarduerak garatzeko, ekintza hauek zehaztu dira:

- Ballonti - Las Carreras zabaltzea: Enkarterriko eskualdea Zadorra sistematik hornituko dela bermatzeko eta Ordunte sistematik ezkerrekoa hornitzeko, beharrezkoa da Ballonti - Las Carreras hoditeriaren edukiera handitzea. Ortuella eta Abanto-Zierbena udalerrietan dago.
- Enkarterriak lehen mailako sarerako hornitzea: Zadorra eta Ordunte sistemen baterako kudeaketa ahalbidetzeko, Enkarterriko Arteria planifikatu da eta, gainera, eskualde hori Venta Altatik hornitzeko aukera ematen du. Muskiz eta Abanto- Zierbena udalerrietan dago.
- Ordunte sistema berritzea: Ordunte - Sollano sisteman egikaritu beharreko lehen ekimena Ibarako ponpaketa egokitzea izango da. Instalazio berriak eta dagokion bulkadak 1.000 l/s-rainoko aprobetxamendua ahalbidetuko dute. Bilbon eta Alonsotegin dago.
- Portugaleteko azpi-ibaia birjartzea: Gaur egun, Bilboko itsasadarraren azpitik doan hornidura-hoditeriaren zatiak, zubi esekiaren parean, hausturak dituzten zenbait puntu ditu. Larrialdi-egoeretan, beharrezkoa da hoditeria hori erabili ahal izatea, ura ezkerreko ertzetik eskuineko ertzerako pasatzeko; hortaz, beharrezkoa da hori birgaitzea. Portugaleten eta Getxon dago.
- Artxandako eta San Rokeko biltegi berria: Artxanda aldea eta Sondika, Zamudio eta Derio udalerriak hornitzeko bermea hobetzeko, Artxandan biltegi berri bat egiteko proiektua egin da. Sondikan dago.



- Venta Altako Edateko Ura Tratatzeke Estazioaren berriztapenak: Baliabide berriak edukitzera bideratutako lan-ildoari dagokionez, ikerketa-lanak egiten ari dira Nerbioi ibaiko uraren tratamendurik egokiena zehazteko. EUTeren ikatz aktiboko eta ozonoko instalazioen birmoldaketari ere ekingo zaio. Azkenik, planta fotovoltaiako bat instalatuko da EUTen, 500 kW-koa; horri esker, plantaren energia-kontsumo ia guztia iturri berriztagarrien bidez estali ahal izango da. Arrigorriagako udalerrian dago.

SANEAMENDUA

Jarduera-ildoak

- Udalerrri guztietara saneamendu kolektiboko sistemak, sare primarioa eta estolderia-sarea hedatzea.
- Saneamendu kolektibora konektatu ezin diren biztanlegune txikietarako arazketa-sistemak ezartzea.
- Hondakin-uren araztegi berriak eraikitzea eta daudenak berritzea eta handitzea.
- Arazketa- eta saneamendu-azpiegiturak osatzea, euri-denboretan gainezkatze-denborak murriztuz eta hondakin-uren berrerabilpena indartuz.
- Saneamendu-sistemen funtzionamendua hobetzea eta optimizatzea, euri-urak sistema horietara sartzea saihesteko jarduketak gauzatuz.
- Hondakin-urak eta euri-urak bereizteko sareen garapena sustatzea, sare unitarioen arintze-fenomenoek euri denboran isuritako kutsadura murriztuz.
- Isurketak sortzearekin lotutako arazketa-sistemak aurreikustea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietako isurketak ezabatzea.

Ekintzak.

Proposatutako jarduera-ildoak garatzeko, ekintza hauek zehaztu dira:

- Galindoko ekaitz-tanga: kolektoreen sare orokorra optimizatzeko azpiegitura, euri-garaian ibilguetara isurtzen den ur kutsatua murrizteko eta, ondorioz, estuarioaren behealdeko ingurumena hobetzeko. Sestao eta Barakaldo udalerrien artean dago.
- La Arenako eta Pobefiako ponpaketak berritzea, gaur egun La Arenako ponpaketan arintzeak gertatzen baitira maiztasun handiarekin. Muskizen dago.
- Galindoko hondakin-uren araztegia: instalazioaren berrikuntza teknikoko eta funtzionaltasun-, ingurumen- eta paisaia-hobekuntzako prozesuarekin jarraitzea. Sestaon dago.
- Muskizko HUA: HUAre tratamendu-edukiera handitzea, bai eguraldi lehorrerako, bai eurirako. Muskizen dago.
- Muskizko HUAre hustubidea: Muskizko HUAre efluentea Barbadungo estuariora ez isurtzeko, lurreko hustubide bat egitea planteatzen da, hondakin-uren araztegitik bertatik itsaso zabalera isurtzeko puntu bateraino, Punta Luceroko olatu-hormaren abiagunean kokatutakoa. Muskiz eta Zierbena udalerrietan dago.
- Urdulizko saneamendua: Lehen mailako sarea hedatzeko obretan aurrera egitea. Kolektore unitario batek eta euri-uren beste batek osatutakoa. Urdulizen dago.



- Bilboko itsasadarreko desbideratze hidraulikoko tunela. Tunel horrek 1.270 m³/s-ko ibilgu alternatibo gisa jardungo du. Azpiegiturak 9 m inguruko altuera eta 3 km inguruko luzera izango lituzke, Abusuko laburretik Olabeagako erriberaraino. Bilboko udalerrian dago.

ENERGIA

Jarduera-ildoak

- a) Sektorekako banaketa aztertzea, baita energia-kontsumoaren ondoriozko berotegi-efektuko gasen isurketen kuantifikazioa, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko aukerak eta berotegi-efektuko gasen isurketak arintzeko aukerak ere, LPPren eremuan karbono-aztarna murrizteko energia berriztagarrien erabilerarekin batera. Azterketa hori AFBMren eremuko berotegi-efektuko gasen isuriaren inbentario baten bidez garatu ahal izango da.
- b) Energia-jasangarritasunaren gidalerroak politika publikoetan txertatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia-jasangarritasunari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- c) Energia-jasangarritasunaren gidalerroak integratzea, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (EKT) arabera.
- d) Elektrizitatea garraiatzeko linea berriak eraikitzeko beharra aztertzea, linea zaharrak kentzeko aukerak aztertuz.
- e) Energia elektrikoa garraiatzeko instalazioen trazadura aztertzea, izaki bizidunen eta paisaiaren gaineko eraginak minimizatzeko, dauden korridoreak aprobetxatuz eta elektrizitatea garraiatzeko linea berrien garapenaren ondoriozko ingurumen- edo paisaia-eraginak minimizatuz edo mugatuz.
- f) Energia elektrikoa garraiatzeko sarearen plangintza kontuan hartzea, bertan jasotako instalazioak kokatzeko behar diren lurzoru-erreserbak eginez eta elektrizitatea garraiatzeko linea berriak eraikitzeko beharra, linea zaharrak kentzeko aukerak eta dauden korridoreak aprobetxatzeko aukera aztertuz.
- g) Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak ezartzeko beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak sartzea.

Ekintzak.

Proposatutako jarduera-ildoak garatzeko, ekintza hauek zehaztu dira:

1. Berotegi-efektuko gasen isuriak sektoreka aztertzea eta kuantifikatzea, AFBMren eremuko berotegi-efektuko gasen isuriaren inbentario baten bidez.
2. Eraikinetan eta azpiegiturretan energia berriztagarriak ezartzeko behar den hiri-plangintza garatzea, iturri berriztagarrietatik energia-hornidura hobetzeko.
3. Eraikuntzan energia-eraginkortasuneko eta aurrezpeneko neurriak ezartzea honako sektore hauetan: bizitegiak, industria, merkataritza eta ekipamenduak.
4. Energia-eraginkortasuneko eta aurrezpeneko neurriak ezartzea herriko argietan.
5. Sektore publikoan, petroliotik eratorritako erregaiei ordezkoko energia-iturriak erabiltzen dituzten ibilgailu-flotak ezartzea.



EKONOMIA ZIRKULARRA: HONDAKINEN KUDEAKETA

Ekintzak.

- a) Tokiko elikagaien hornidura-sistemak eta hurbileko lurraldearekin lotutako ekonomia-ereduak ahalbidetzea.
- b) Jarduera ekonomikoetako hondakinen eta azpiproduktuen kudeaketa jasangarria sustatzea.
- c) Erabilitako tresnak eta produktu berrerabilgarriak berrerabiltzeko mekanismoak eta zirkuituak garatzea ahalbidetzea.
- d) Beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarrien erabilera-hobiak mantentzea eta, hala badagokio, handitzea sustatzea.
- e) Pertsona fisiko edo juridiko interesdunek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarriak biltzea, garbitzea eta merkaturatzea sustatzea.
- f) Hondakinen kudeaketari dagokionez dauden azpiegituren, ekipamenduen eta zerbitzuen erabilera optimizatzea.
- g) Nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen kudeaketa optimizatzea.
- h) Nekazaritza-ingurumeneko kontratuak sustatzea abeltzaintzako ustategietan.
- i) Ustategietan fitosanitarioen, zoosanitarioen eta plastikoen gaikako bilketa sustatzea.
- j) Nekazaritza-jardueretan sortutako beste hondakin organiko batzuen kudeaketa egokia sustatzea (inausketak, ardogintza-patsak, esne-serumak...).